

INGURUMEN HEZKUNTZA IRUÑA

# JASANGARRITASUN ESKOLA

2022KO UDAZKENA



Ayuntamiento de  
Pamplona

Iruñeko  
Udako





T. 948 14 98 04 / 948 42 09 84

[www.educacionambiental.pamplona.es](http://www.educacionambiental.pamplona.es)  
[educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es)

 @GoGreenIruna  
 @GoGreenIruna  
 @GoGreenIruna

**Goizez**, asteartetik ostiralera. 10:00 – 13:00  
**Arratsaldez**, asteartetik ostegunera. 18:00 – 20:00

### EGUBERRIAK

Abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra, biak barne, goizeko ordutegia bakarrik:  
 10:00etatik 13:00etara. Urtarrilaren 5ean itxita.

**Errotazar k. 21 bis. 31014 Iruña**

DU/LG-2226-2017

## BASOAN MURGILDU



Udako beroaren ondoren, udazken honetan basoko freskotasunean murgilduko gara.

Jasangarritasun Eskolak ingurune honetara bertatik bertara hurbiltzea proposatzen du, baina baita literaturatik, argazkigintzatik edo zinematik ere, eta haren etorkizunaz hausnartzera ere gonbidatzen gaitu.

Eta basoa urrun badago, beti izan n dugu hirian bizikletaz ibiltzen jarraitzeko aukera, parkeak, txokoak eta baratzeak ezagutzeko.

Gure hedabideak (webgunea, sare sozialak, buletin elektronikoa) erabiltzea gomendatzen dizuegu, gerta daitezkeen aldaketen berri izateko.

Jarduera guztiak doan dira parte-hartzaileentzat, baina diru publikoaren gastua eragiten dute. Mesedez, egiaztatu libre zaudetela izena eman baino lehen.

Izan ere, bajek eragiten ahal dute itxarote-zerrendan daudenek ezin izatea hutsik geratutako lekuak bete.

## Aurkibidea

Herritarrak abian	<b>7</b>	Dokumentalen zikloa	<b>28</b>
Hitzaldi-solasaldiak	<b>8</b>	Erakusketak	<b>32</b>
Lantegiak eta ikastaroak	<b>12</b>	Merkatu txikia	<b>34</b>
Iruña berdea da	<b>17</b>	Museoa zeureganatu	<b>36</b>

# Urria

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1 Bizikleta- ibilaldiak Iruñeko hiri- artean barna: Artea eta generoa*	2
3	4 Ezagutu Iruñeko hegaztiak Ibilaldi ornitologikoa *	5 Erakusketaren aurkezpena: Zuhaitz erraldoi eta bereziak Er	6 Bizikletaz irteera baratze komunitarioak ezagutzeko * Er	7 Er	8 Bizikleta- ibilaldiak Iruñeko hiri- artean barna: Eskultura abstraktoa*	9
10	11 Er	12 Er	13 Bizitxoko Er	14 Er	15 Bizikleta- ibilaldiak Iruñeko hiri- artean barna: Pertsonaia ospetsuak *	16
17	18 Lantegia: baratzea udazkenean* Er	19 Iruñeko basoen azpian ezkatututako harkaitzak* Er	20 Er	21 Er	22 Bizikleta- ibilaldiak Iruñeko hiri- artean barna: Ezkatuko altxorrak*	23
24	25 Merkatu txikia Er	26 Merkatu txikia Er	27 Merkatu txikia Hitzaldia: Nafarroako baso-suteen bilakaera historikoa eta etorkizuna Er	28 Merkatu txikia Er	29	30

**Er** **Erakusketa:** Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz erraldoi eta bereziak. Urriaren 4tik abenduaren 9ra arte.

\*Jarduera hau EZ da Museoen egiten. Barruan kontsultatu.

# Azaroa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2 Lantegi praktikoa: Intsektu- endako ostatuak*	3 Magdalenako fauna eta flora* Ipuin kontalaria: Basoko istorioak gaztelania	4	5	6
7	8 Udazkeneko sendabelarrak * Er	9 Hitzaldia, Nola sailestu dizaklegu gure etxea gehigi- berotzea? Er	10 Bizitxoko Ipuin kontalaria: Basoko istorioak euskaraz Er	11 Er	12	13
14	15 Dokumentalen zikloa Lab me crazy: 700 Sharks Er	16 Dokumentalen zikloa Lab me crazy: Salvar al bucardo Er	17 Dokumentalen zikloa Lab me crazy: Nature's Fear Factor Er	18 Er	19	20
21	22	23 Kolorearen laborategia (gaztelaniaz) Er	24 Kolorearen laborategia (euskaraz) Er	25 Er	26	27
28	29 Er	30 Klima- ekintza Er	Er	Er		

**Er** **Erakusketa:** Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz erraldoi eta bereziak. Urriaren 4tik abenduaren 9ra arte.

\*Jarduera hau EZ da Museoen egiten. Barruan kontsultatu.

## Abendua

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13 Kosmetika naturalaren lantegia	14 Hitzaldia: Klima-aldaketaren kontrako basoa	15 Bizitxoko	16	17	18
19	20 Merkatu txikia	21 Merkatu txikia	22 Merkatu txikia	23 Merkatu txikia	24	25
	Hitzaldia: Nola daude Iruñeko hegaztiak?	Klima-ekintza				
26	27	28 Jostailuen azoka txikia	29	30	31	1

## Urtarrila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
2	3	4 Jostailuen azoka txikia	5	6	7	8
	Ex	Er	Er	Er		

**Er** Erakusketa: - Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz erraldoi eta bereziak. Urriaren 4tik abenduaren 9ra arte.

- Hiria, ekosistema gisa. Abenduaren 13tik urtarrilaren 6ra arte.

## INGURUMEN HEZKUNTZAKO LANTALDEA. IRUÑEKO UDALA

### KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA



#### URRITIK MAIATZERA, HILEAN ASTEAZKEN BATEZ, 18:00 – 20:00.

Urriak 26, azaroak 30, abenduak 21, urtarrilak 25, otsailak 22, martxoak 29, apirilak 26 eta maiatzak 24

#### **TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Klima-aldaketari buruzko albisteak telebistan ikusi eta itzali egiten duzu abailduta sentitzen zarelako? Klima-aldaketak kezkatzen zaitu eta ez dakizu nondik hasi zerbait egiten? Baietz erantzun baduzu, hau da zure taldea.

Irtenbidearen parte izaten hasteko toki bat, hilean behin, gure egunerokotasunetik (kontsumoa, energia edo elikadura). Eta, batez ere, taldean ekiteko, gogobetetzea eta esperantza erein bitartean.

#### **Izen-ematea, aurrez**

Irailaren 20tik aurrera, 010era edo 948 420100era deituta (mugikorretatik edo Iruñean kanpotik deituz gero). Izen-emate bakarra saio guztietarako.

## NAFARROAKO BASO-SUTEEN BILAKAERA HISTORIKOA ETA ETORKIZUNA



Elías Arraiza eta Jon Díez de Ure

**Urriak 27, osteguna. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Hitz eginen dugu Nafarroako baso-suteek, Iberiar Penintsulan eta planetako beste toki batzuetan bezala, izan duten bilakaerari buruz eta horrek landa eremua uztearekin eta klima-aldaketaekin duen loturari buruz.

Orokorrean, landuko dugu zer egin daitekeen sute horiek herritarrengan, ondasunetan eta ingurugiroan izan ditzaketen ondorioak arintzeko.

**Elías Arraiza** Suhiltzaile-ofiziala eta basoetako arduraduna da, eta **Jon Díez de Ure** Suhiltzaile-sarjentua eta Tuterako parkeko arduraduna da.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## NOLA SAHIESTU DEZAKEGU GURE ETXEA GEHIEGI BEROTZEA? READY KLIMA PROIEKTUA



Aurora Monge eta Ainhoa Arriazu

**Azaroak 9, asteazkena. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bero-boladak gero eta ugariagoak dira gure udetan, modu bortitzagoan eta denbora luzeagoz. Bolada horietan, etxebizitzan barrualdea nabarmen berotzen da, eta horrek lo egiteko zailtasunak, osasun-arazoak eta abar sortzen ditu.

Horregatik, jardunaldi honen helburua da aztertzea etxebizitzan eta erabileraren zer faktore diren funtsezkoak etxeak gehiegi berotzea saihesteko, eta zer egin dezakegun gure etxeak uda beroagoetara eta bero-boladetara egokitzeko.

Jardunaldia ClimaReady proiektuaren ikerketa eta ondorioetan oinarrituta dago, eta Gizartearen Erronketara Bideratutako 2019ko I+G+B Estatuko Ikerketa Planak (Zientzia eta Berrikuntza ministerioa) diruz lagundu du.

**Aurora Monge Barrio** Arkitekto Doktorea da eta Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura eskolako irakaslea, eta **Ainhoa Arriazu Ramos** arkitektoa da, ikerlari gisa lan egiten du eta doktoretza-tesia garatzen ari da ClimaReady-Klimarako prest proiektuaren barruan. Biak SAVIArquitectura ikerketa-taldeko kideak dira.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BASO BAT IRUÑEAN



Marta Torres

**Abenduak 14, asteazkena. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Basoek ibiltzeko tokia eskaintzen dute, paisaia bikaina dira eta basafaunari babesa eta elikagaia ematen diote. Gainera, orain xurgatzen duten karbono kopurua neurtzen ahal da, klima-aldaketak sortzen dituen isurpenak orekatzeko neurri gisa.

2021ean Iruñeko Udalak xurgapen-baso bat landatzeari ekin zion, eta ekimen horregatik Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak emandako 'Konpensatzen dut' zigilua jaso du, klima-aldaketaren aurkako borrokan karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak aitortzen dituena. Hitzaldi honetan, orain arte egindako urratsei eta etorkizunerako aurreikuspenei buruz hitz egingen da.

**Marta Torres** Iruñeko udalaren Agenda 21eko teknikaria da.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## NOLA DAUDE IRUÑEKO HEGAZTIAK?



Aranzadi Zientzia Elkarte

**Abenduak 20, asteartea 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Hegaztiak ikusteko ez da Iruñetik atera beharrik. Urtero, landan eta hirian urte askotako eskarmentua duen ornitologo-lantalde bat, prismatikoak eskuan, kalera irteten da, eta ikusten dituen txoriak zenbatzen ditu. Ikerketa zenbait egin direlarik, dagoeneko baditugu datuak arlo horretan Iruñeak duen osasun-egoera nolakoa den jakiteko.

**Aranzadi Zientzia Elkarateak** 2000 bazkide ditu gaur egun, eta horietatik, 150 hainbat arlo zientifikoetako ikerlariak dira eta entitatearen eremuan egiten dute lan. Elkarateak ondare zientifikoa, historikoa eta kulturala kontserbatzen eta balioesten laguntzen du.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**



## KONPONDU ZURE BIZIKLETA-BIZITXOKOA



Juanjo Iriarte

**Ostegunak: Urriak 13, azaroak 10 eta abenduak 15**

**18:00 – 20:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta prest jartzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau.

**Juanjo Iriarte** konponketetan aditua da eta bertaratzen direnei laguntza eta aholkuak emanen dizkie.

**Izen-ematea, aurrez:** Egun hauetatik aurrera: Irailak 27 (urriarako), urriak 25 (azarorako), azaroak 29 (abendurako). 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

LANTEGI PRAKTIKOA:

## INTSEKTUENDAKO OSTATUAK



Eider Azcoaga

**Azaroak 2, asteazkena. 17:00 – 19:00**

**TOPALEKUA** Etxabakoitzeko hiri-baratzeak

Urdánoz etxe-multzoa (Haur-eskolaren parean)

Gure ingurunean bizi diren intsektuak eta bestelako ornogabeak oso lagungarriak izaten ahal zaizkigu, eta zaindu beharreko ezinbesteko elementuak dira naturan. Lantegi honen bidez ikasiko dugu zein espezieri buruz ari garen, zeintzuk diren haien funtzioak eta "ostatuak" eraikiko dizkiegu gure baratzeetan ostatu hartu ahal izateko.

**Eider Azcoaga** biologoa da eta ingurumen hezkuntzan aditua.

**Izen-ematea, aurrez:** Urriaren 18tik aurrera, 010 edo 948 420 100era deituta (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

## BASOKO ISTORIOAK



### Inés Bengoa

**Azaroak 3, osteguna (gaztelaniaz). 17:30 - 18:30**

**Azaroak 10, osteguna (euskaraz). 17:30 - 18:30**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Basoa izaki bizidun askoren etxea da -animaliak eta landareak- eta, horregatik, bertan gertatzen den guztiaren lekukoa da. Bere hizkuntza isiltasuna ez balitz, kontu sinestezinak esanen lizkiguke. Basoko ibildaldietan zuhaitzek xuxurlatzen dituzten istorioak entzuten ikasi dut. Entzun nahi al dituzue Basoko istorioak? Zuen zain nago.

**Inés Bengoa** ahozko kontalaria da duela 20 urtez geroztik eta basoak maite ditu.

**Izen-ematea, aurrez:** Urriaren 18tik aurrera, 010 edo 948 420 100era deituta (mugikorretatik edo lruñeaz kanpotik deituz gero).

## KOLORE-LABORATEGIA



### Itziar Unzurrunzaga

**Azaroak 23, asteazkena 18:00 - 20:00, gaztelaniaz**

**Azaroak 24, osteguna 18:00 - 20:00, euskaraz**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

EHUNGINTZA-LANDARE-TINDUAK (kolore-laborategia) jardueran kolorearen historia, oihalen kolorea "finkatzen", tindatzeko landareak sailkatzen eta horiek biltzeko garaiak ikasiko dira, eta, azkenik, "bundle dye" teknika landu eta loreetan oinarritutako oihalen diseinua egingen da.

**Itziar Unzurrunzaga Llach**, Bartzelonako Escola Eina de Diseny i Arten diplomatu zen. Unzurrunzaga ezaguna da tokiaren, naturaren eta oroimenaren arteko harremanak ikertzeagatik.

**Izen-ematea, aurrez:** Azaroaren 8tik aurrera, 010 edo 948 420 100era deituta (mugikorretatik edo lruñeaz kanpotik deituz gero).



## LANTEGIA: KOSMETIKA NATURALA



Patricia Bañuelos Villaverde

**Abenduak 13, asteartea. 18:00 – 20:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Kosmetika naturaleko produktuak egiten hasteko lantegia. Lantegian ikasiko da edozein krema mota egiten, azal mota bakoitzarendako egokiena den osagaia hautatzen eta, parte-hartzaile bakoitzak etxera eramateko aurpegiko krema hidratatzaile bat eginen du. Gainera, modu autonomoan norbere krema-artistauak egiteko behar den informazio guztia biltzen duen gidoi bat ere eramanen du.

**Patricia Bañuelos Villaverde** Kimikan lizentziaduna da eta Kimika Organikoan doktorea, sendabelarrei eta kosmetikari buruzko hainbat ikastarotan trebatu, eta beste guztia autoikaskuntza izan zen.

**Izen-ematea, aurrez:** azaroaren 22tik aurrera, 010 edo 948 420 100era deituta (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

## BIZIKLETA-IBILALDIAK IRUÑEKO HIRI-ARTEAN BARNA: ARTEA ETA GENEROA



Ricardo Laspidea

**Urriak 1, larunbata. 11:00 – 13:00**

**TOPALEKUA** Aduanako zokoa.

Ibilaldia eskulturetan barna, genero ikuspuntutik. Ricardo Laspideak gidatuko du bisita, honako geldialdi hauekin:

- Gogoan.** Dora Salazar. Orreaga etorbidea.
- Familia monumentua.** Henriette Boutens. Pio XII.aren etorb.
- Izenbururik gabe.** Concha Cilveti Yamaguchi parkea
- Enpatia II.** Henriette Boutens. NUPeko campusa.

Ricardo Laspidea Iruñean jaiotako diziplina anitzeko artista da, hainbat diziplina landu ditu, eta ez da arte-hizkuntza bakarrarekin konformatu.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 12tik aitzina

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## EZAGUTU IRUÑEKO HEGAZTIAK. IBILALDI ORNITOLOGIKOA



**Gabi Berasategi (Ornitolan SL)**

**Urriak 4, asteartea. 18:00 - 20:00**

**TOPALEKUA** Zamargileen zubia

Ibilaldi honen helburua da inguratzen gaituzten hiriko hegaztien ezagutza hurbiltzea herritarrei eta hegaztien garrantzia azpimarratzea, horiek babesten eta kontserbatzen lagunduz.

**Gabi Berasategi** biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako bioaniztasuna ikertzen eta hedatzen.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## BIZIKLETAZ IRTEERA BARATZE KOMUNITARIOAK EZAGUTZEKO



**Marina Jiménez Díez**

**Urriak 6, osteguna. 18:00 - 20:00**

**TOPALEKUA** Mendebaldeko baratze komunitarioa (Nafarroako Liburutegi Nagusiaren ondoan)

Bizikleta-bilaldia hirian barna baratze komunitarioak ezagutzeko, Iruñeko Udalak klima-aldaketara egokitzeko neurrien adibide gisa.

**Marina Jiménez** Iruñeko Udaleko Agenda 21eko teknikaria da.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## BIZIKLETA-IBILALDIAK IRUÑEKO HIRI-ARTEAN BARNA: ESKULTURA ABSTRAKTOA



Ricardo Laspidea

**Urriak 8, larunbata. 11:00 – 13:00**

**TOPALEKUA** Aduanako zokoa

Ibilbidea Iruñean hobekien ezkatutako eskultura publiko batzuk ezagutzeko. Ricardo Laspideak gidatutako bisita hiriko toki hauetara:

- Baoak.** Vicente Larrea. Ziadadela
- Lehen musua.** Jesús Alberto Eslava. Gaztelugibel
- Izenbururik gabe.** José Ramón Anda Elío epailearen plaza
- Une espirituala.** Jorge Oteiza. Yamaguchi parkea
- lhesa.** Javier Muro. NUPEko campusa

**Ricardo Laspidea** Iruñean jaiotako diziplina anitzeko artista da, hainbat diziplina landu ditu, eta ez da arte-hizkuntza bakarrarekin konformatu.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## BIZIKLETA-IBILALDIAK IRUÑEKO HIRI-ARTEAN BARNA: PERTSONAIA OSPETSUAK



Ricardo Laspidea

**Urriak 15, larunbata. 11:00 – 13:00**

**TOPALEKUA** Aduanako zokoa

Ibilbidea pertsona ospetsuak omentzen dituzten Iruñeko eskultura publikoetara. Ricardo Laspideak gidatutako bisita, honako eskultura hauetara:

- José Joaquín Arazuriren monumentua.** Rafael Huera. Arazuri Doktoarearen pasealekua.
- Ernest Hemingway Luis Sanguino.** Zezen-plaza.
- Poesiaren branka.** Joan Brossari omenaldia. Ricardo Ugarte. NUPEko campusa.
- Santiago Ramón y Cajalen monumentua.** Josep Blasco i Canet Nafarroako Ospitalearen lorategia.

**Ricardo Laspidea** Iruñean jaiotako diziplina anitzeko artista da, hainbat diziplina landu ditu, eta ez da arte-hizkuntza bakarrarekin konformatu.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## LANTEGIA: BARATZEA UDAZKENEAN



Tania Gómez Rodrigo

**Urriak 18, asteartea 18:00 - 20:00**

**TOPALEKUA** Etxabakoitzeko hiri-baratzeak Urdánoz etxe-multzoa (Haur-eskolaren parean)

Ibilaldia eginen da baratzearen udazkeneko mantentze-lan hauetan barna: bildu, udako laboreak kendu, hondoa ongarritu eta lurra babestu, ongarrri berdeak, neguko laboreen zainketa, lurzorua prestatu eta udaberriko laboreak erin, ugalketa asexuala...

**Tania Gómez Rodrigo** Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## IRUÑEKO BASOEN AZPIAN EZKUTATUTAKO HARKAITZAK



Fran Sanz Morales

**Urriak 19, asteazkena. 18:00 - 20:00**

**TOPALEKUA** Mendillorriko ur-biltegiak. Uren parkerako sarreraren ondoan, Ustarrotz Kontzejuaren kalean (Mendillorri)

Irteera honetan gure lurraldearen paisaia-aniztasun handia eta haren atzean ezkutatzen den geozitasuna ezagutuko dira.

Helburua da Mendillorriko ur-biltegien inguruan ibilaldi atsegina bat egin eta hemen dauden landare-espezieen bioaniztasuna behatzea, kontzeptu hori uraren garrantziarekin eta haren kudeaketarekin, hemen dauden harkaitzekin (Argako ibai-terrazarik garaiena), lurzoruekin eta, are gehiago, behatokitietatik ikusten den hurbileko ingurunearekin uztartuz.

**Fran Sanz** geologoa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakaslea da.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## BIZIKLETA-IBILALDIAK IRUÑEKO HIRI-ARTEAN BARNA: EZKUTUKO ALTXORRAK



Ricardo Laspidea

**Urriak 22, larunbata. 11:00 - 13:00**

**TOPALEKUA** Aduanako zokoa

Ibilbidea Iruñean hobekien ezkutatutako eskultura publiko batzuk ezagutzeko. Ricardo Laspideak gidatutako bisita hiriko toki hauetara:

- Navarro Villosladaren monumentua.** Lorenzo Coullaut Valera. Navas de Tolosa kalea
- Ponpeioren monumentua.** José Antonio Eslava. Antoniutti parkeko birilgunea
- Gizonezkoaren gorputz-enborra.** Javier Alcalde. Ibarbideko parkea
- Lehoiak.** Ángel Ibáñez Ceba. Bartolomé de Carranza kalea

**Ricardo Laspidea** Iruñean jaiotako diziplina anitzeko artista da, hainbat diziplina landu ditu, eta ez da arte-hizkuntza bakarrarekin konformatu.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## BASOAZ BLAI



Núria Gaxas Sánchez eta Javier Gómez Urrutia

**Urriak 25, asteartea. 17:30 - 19:30**

**TOPALEKUA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Baso-bainuak edo ibilaldi kontzientek Naturarekin harremanetan jartzeko jarduerak dira, eta baso helduetan edo ongi zaindutako hiri-parkeetan egiten dira, berdegune handiekien eta, ahal bada, erreka batekin, uraren indar iradokitzailea eta sendatzailea aprobetxatzeko. Proposamen honek xede du erlaxatzeko eta Naturarekin harremanetan jartzeko gune bat sortzea, hiri-parke batean kontzienteki paseatzearen onura fisiko eta emozionalak ezagutzera ematea eta pertsonak Naturari buruzko begirada ezberdin batekin Iruñeko hiri-parkeetara hurbiltzen laguntzea.

**Núria Gaxas Sánchez** biologoa da, basoez maiteminduta dago eta Sèlvans elkarteko baso-bainuen gidaria da.

**Javier Gómez Urrutia** ere biologoa da, basoa eta perretxikoak maite ditu eta ingurumen-hezitzailea da.

**Izen-ematea, aurrez:** Irailaren 20tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## MAGDALENAKO FAUNA ETA FLORA



Gabi Berasategi (Ornitolan SL)

**Azaroak 3, osteguna. 17:00 – 19:00**

**TOPALEKUA** Zaldainetan (Club Natación)

Ibilaldia bioaniztasun handiko lurraldea den Magdalenako baratzeen inguruko flora- eta fauna-aberastasunean barna.

**Gabi Berasategi** biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako bioaniztasuna ikertzen eta hedatzen.

**Izen-ematea, aurrez:** Urriaren 18tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea

## SENDABELARREI BURUZKO LANTEGIA



Josean Vidaurre

**Azaroak 8, asteartea. 10:30 – 12:30**

**TOPALEKUA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan irteera labor bat eginen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko.


Gero, ikasgelara itzultitakoan, horien ezaugarri sendagarriak eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalantza guztiei erantzunen zaie.

**Josean Vidaurre** nutrizionista eta fitoterapiari aditua da.

**Izen-ematea, aurrez:** Urriaren 18tik aitzina:

- 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituta.
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Iruñeko Civivox sarea






Zinema dokumentala gure programazioan izanen da berriz ere. Oraingoan, #LabMeCrazy! jaialdiko hautaketa bat ekarri dugu. Nafarroako Unibertsitateko Zientzietako Museoa-ren ekimena da, eta Iruñeko Udalak babesten du. Egungo begirada freskagarria ezagutza zientifikoari.



**700 SHARKS** (700 MARRAZO, J B AZPIDATZIEKIN).  
FRANTZIA, 92 MIN., 2018. LE CINQUIÈME RÈVE.



**Azaroak 15, asteartea. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Beti esan ohi da marrazoa bakartia dela eta bakarrik egiten duela ehiza. Baina azken ikerketek argitu dute marrazoek taldean egiten dutela ehiza.

Lagun iezaiezu 5 itsas-zientzialari hoberenei 700 marrazotako talde batek, munduko handienak, ezkutatzen dituen misterioak argitzen.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## SALVAR AL BUCARDO

ESPAINIA, 52 MIN., 2019. PALOCHA PRODUKZIOAK.



**Azaroak 16, asteazkena. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

“Salvar al bucardo” filmak gizateriaren historiako lehen ‘agertzea’ kontatzen du. Pirinioetako animalia adierazgarri hau, basahuntz piriniotarra, salbatzeko etsi-etsian egindako urteetako borrokaren ondoren, 2000ko urtarrilaren 6an, azken alea hil zen. Hala ere, zientzialari espainol eta frantsesek utopia bat planteatu zuten, azken basahuntz piriniotarra klonatzea. Historian lehenago ez da inoiz desagertutako animalia bat bizitzara piztu. Zailtasunek gaindiezinak ziruditen, basahuntz piriniotarra zelula bakarretik abiatuta sortu behar zuten, ez zegoen hozirik, ezta horiek eraman zitzaizkaten emerik ere. 3 urteko ikerketaren ondoren, 2003ko uztailean, subespezie bat lehen aldiz ‘agertu’ zen, lehen “Jurassic Park” erreala egin zen. “Salvar al bucardo” filmak istorio liluragarri eta hungigarri hau jasotzen du, lehen ‘agertzearen’ jaiotzaren irudi argitaratugabeekin.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## NATURE'S FEAR FACTOR

(NATURA: BELDUR-FAKTOREA J B AZPIDATZIEKIN).

ESTATU BATUAK, 54 MIN., 2020. HHMI TANGLED BANK STUDIOS



**Azaroak 17, osteguna. 19:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Esperimentu ausart batean, Afrikako zakur basati eta ankerrak Mozambikoko Gorongosa Parke Nazionalera eraman zituzten atzera berriz; esperimentuak ezagutzera ematen du harrapariak eta sortzen duten beldurrak zeregin harrigarri eta erabakigarria betetzen dutela basa-ekosistemak osasuntsu mantentzeko. Duela gutxi arte uste zen harraparien eragina soila zela ekosistemetan: harrapariak harrapakinak jaten dituzte, populazioak kontrolpean mantenduz. Baina, gero eta gehiago, ekologoak konturatzen ari dira berez harrapariak egoteak portaeran aldaketa esanguratsuak sor ditzakeela.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## NAFARROAKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUHAITZ ERRALDOI ETA BEREZIAK

Vicente Guinea González De Artaza

**Urriak 4 – abenduak 9**

**Inaugurazioa:** urriak 5, asteazkena, 18:30ean.  
Bisita gidatua erakusketara.

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa



Zuhaitz ale hauek, aparteko edo azpimarratzeko ezaugarriak direla-eta (neurria, adina, historia, edertasuna, egoera, etab.), babes berezia merezi dute.

Pagoa, haritza eta artea dira Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitzik adierazgarrienak. Lotura estua dute baserriarekin eta mota guztietako ipuin eta elezaharrek, eta itzala eta babesa eman diete baseliza, animalia-talde, eta jai giroan eta erromerian elkartzeko zelaiei.

Baserrira da adibiderik argiena, familia- eta gizarte-bizitzaren erdigune gisa. Eta natura horren barnean, basoak eta hura osatzen duten zuhaitzak dira erdigunea, 'Amalurra' (Lurra) eta pertsonen arteko oreka horren ikusmoldean.

Vicente Guinea Elgoibarkoa da eta naturaren zale amorratua, bereziki zuhaitzena. Urteak daramatza zuhaitz berezi hauen bila, argazkiak egin eta bilduma hori osatuta gu gozarazteko.

Urriaren bostean berariaz etorriko da gure instalazioetara, bisita gidatua egin eta bere lan bakoitzari buruz pixka bat gehiago erakustera.

**Sarrera librea, leku guztiak bete arte.**

## IRUÑEKO GUTUN-EKO SISTEMAK: HIRIA EKOSISTEMA GISARA



Maidar Garayo, Paula Torán eta Nahia Villanueva

**Abenduak 13 – urtarrilak 6**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erakusketa hau herritarrek parte hartzeko dei baten bidez egin zen, eta bertan hiriarri ekosistema gisa erreferentzia egiten zioten objektuak bildu ziren. Pieza hauek hartu-emanetan daude Maidar Garayok, Paula Toránek eta Nahia Villanuevak Uharteko Arte Garaikidearen Museoa eta Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak bultzatutako egonaldi artistikoan ondu duten testuinguruarekin.

Nola bizi gara, nola sentitzen dugu eta nolako harremanak ditugu gure ingurunearekin?

Proiektuaren helburua da artearen bidez testuinguru jakin batean arakatzea, Iruñeko ekosistema kasu, eta horrela, harreman berriak eraikitzea sormen-prozesu ezberdinen artean. Analogia bisual, testual eta objektualen bidez egin dute; horixe dira, hain zuzen, jasotako eta erakusketa honetan ikusgai paratu diren olerki, testu, gauza eta tramankuluak.

## DIRURIK GABEKO TRUKE-AZOKA TXIKIA



**Urriaren 25etik 28ra, eta abenduaren 20tik 23ra, museoaren ordutegian**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erostearen aurrean alternatiba bat eskaintzen da, berrerabilpena sustatuz. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako. Azokan denetarik aurki daiteke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Parte-hartzaileek egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izanzen direlakoan. Aste bakoitzean sei gauza trukatzeko ahal dira gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuekin. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiratu du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko.

## JOSTAILUAK TRUKATZEKO AZOKA TXIKIA



**Abenduaren 28an (asteazkena) eta urtarrilaren 4an (asteazkena). 11:30 - 13:00**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Merkatuaren xedea da jostailuen trukea sustatzea, eta horrela, berrerabilpena bultzatzea, kontsumo-alternatiba bat eskaintzea eta jostailuen bizitza luzatzea. Haurrek dagoeneko erabiltzen ez dituzten jostailuak ekar ditzakete, betiere egoera onean badaude -edozein jolas, liburu, ipuin, puzzle eta abar izan daiteke-, eta horiek trukatzeko ahalko dituzte beste neska-mutil batzuek eramandako objektuekin. Haurrek -familiek lagunduta- erabakiko dute nola egin trukea; hala ere, Ingurumen Hezkuntzako taldea arduratuko da txikiak zeregin horretan gidatzea.

# MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkarreek, ikastetxeek eta kolektiboek egiten dituzten ingurumen- eta gizarte-proiektuak zabaldu. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa, hitzaldi eta abarretarako. Hitzaldi-aretoa, ikasgelak, bilera-gelak eta erakusketa-gunea ditugu.

**[educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es)**

